# Maiatzaren lehena, oraina eta geroa



# Lehena

- 1886ko maiatzaren lehena: greba orokorrak Chicago eta beste hiri asko gelditzen ditu
- *Philadelphia Tribune*k dio:
  langileak erotu egin dira
- Lanaldia eguneko 16 ordukoa zenean langileek 48 orduko astea eskatzen zuten (8 ordu lan, 8 ordu atseden, 8 ordu nahi dugunerako)
- Eta sindikatuetan antolatzeko eskubidea

# Lehena

- Urte bete beranduago greba horregatik langileen lau buruzagi hurkatu zituzten
- *Chicagoko martirien* omenez egun bat izendatu zuen II. Internazionalak: Maitzaren Lehena
  - Chicagon gertatutakoen oroimenez
  - Kapitalismoaren bidegabekerien kontrako langile borrokaren ikur gisa

PREKARIETATEARI EZ!
MAIATZAREN LEHENA 2015
ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# Oraina

- Nazioarteko konbentzioek, konstituzioek eta legeek arrazoia eman diete lau hurkatuei
- Maiatzaren Lehenean bat egiten dute historia eta geografia guztiek, erlijio, hizkuntza eta kultura guztiek
- Gizadi osoaren benetazko egun unibertsala da
- *Erotutako langileen* borrokek lortu dute garai batean ezinezko zirudiena eskubide bihurtzea

# Oraina

- Langile borrokak lortutako *kapitalismo gizatiarrak* maskara kendu du
- Enpresa arrakastatsuenak langileengan merkantzia hutsa ikusten dute
- Gobernuek enpresa handiei langile esaneko eta merkeak eskura jartzen dizkie, legeak aldatuz
- Pertsonen duintasuna bermatzen zuten eskubideak traba dira irabaziak pilatzeko

# Oraina

- Desberdintasunak handitzen ari dira
- Pobrezia hazten ari da
- Esplotazio baldintzetan diharduen prekariatu berri bat ari da hedatzen
- Bizitza sostengatzen duen lana ikusezin mantentzen da, emakumeen esku
- Planetako baliabideak agortzen ari dira behar ez ditugun gauzak produzitzen eta garraiatzen

# Geroa

- Gure seme-alabentzat beste zerbait nahi badugu,Chicagoko *langile eroak* gogoan izan
- Langileak gelditzen bagara, mundua gelditu egiten da: guk zaintzen dugu, guk hezitzen, guk sendatzen, guk fabrikatzen, guk garraiatzen...
- Beste gauza bat da nor jabetzen den guk egindakoaz; beste gauza bat da hori...
- ... baina geroa guk eraikiko duguna izango da

PREKARIETATEARI EZ!
MAIATZAREN LEHENA 2015
ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# Maiatzaren Lehena

- Euskal Herriko *langile erook* zita bat dugu
  - Nahi dugun bizitza hori sortu eta zaintzeko
  - Behar dugun mundu hori eraikitzeko
  - Munduaren artisauak gu garela ospatzeko
  - Planetaren mugak errespetatuz
    hobe bizi daitekeela gogoratzeko
  - Artisau desberdinok elkarrekin otordua egiteko
  - *Chicagoko eroek* erakutsitako bidearekin
    konpromisoa berresteko

# Maiatzaren Lehena

- Maiatzaren Lehenean
  Bilboko kaleak bete behar ditugu
- 11:45 tan dugu hitzordua Jesusen Bihotzean
- Ekitaldi politikoa, manifestazioa eta...
- Langile-bazkaria Areatzan
  bertako produketuekin

**MAIATZAK 1ean BILBO LANGILE KOLOREZ JANTZI BEHAR DUGU**


PREKARIETATEARI
EZ!
MAIATZAREN
LEHENA
2015
ELA
EUSKAL SINDIKATUA